Bi haur birmaniar Bangladesheko errefuxiatu eremuan. AP

Nazioarteko arazo bihurtzen ari da Birmaniako errepresioa

LUIS FERNANDEZ / **DONOSTIA**

Birmaniako militarren errepresio gogorraren eragina dela medio Asiako hegoekialdeko gainontzeko estatuak ere kezkatzen hasi dira. Birmania ondoko Bangladeshen bereziki Rohingya etniako musulmanen ihesa arazo larria bilakatu da. Abendutik hona 200.000 errefuxiatu rohingya sartu dira Bangladeshen, eta egoera penagarrian daude dagoeneko nahikoa miseria bizi duen estatua bait da hau.

Bangladesehez gain, ASEAN elkartean bildutako inguruko beste estatuek ere gogor kritikatu dute Birmaniako militarren jokabidea. Horretan enfasi berezia jarri dute Malaysia eta Indonesiak, estatu musulmanak hauek, Birmanian jazarritako Rohingya gutxiengo bezala.

Rohingya musulmanak kostaldeko Arakan eskualdean bizi dira Birmanian (herrialde nagusiki budista). Bertan biztanlegoaren % 70 dira eurek diotenez (% 40, beste kalkulu batzuen arabera), eta gerrila mugimendu bat ere bazeukaten. Militarren errepresioa duela urtebete areagotu egin zen. Rangoon-eko agintariek diotenez «atzerritarra» da Rohingya herria. Errepresioaren aurpegi latzena hilketa masiboak izan dira, baina baita ere herriak suntsitzea, emakumeak bortxatzea edota kontzentrazio eremuak irekitzea. Azken hiru hilabeteetan 4.000 rohingya hil dituztela salatu dute musulmanek.

KAREN GERRILAREN BORROKA Arakan Estatuko 'fronteaz' gain, beste batzuetan ere jarrera gogortu egin du Rangooneko junta militarrak. Barnekaldeko mendietan, aspalditik borrokan ari den Karen gerrilaren aurkako eraso gogorrari ekin diote duela gutxi. Kasu honetan, Thailandiak salaketak egin ditu Birmaniaren aurka, beren mugetan barneratu direlako militar birmaniarrak Karen gerrilarien atzetik.

Igandetik astelehenera, talde birmaniar batek eraso egin zion Thailandiako muga postu bati. Armada thailandiarrak erantzun eta zenbait birmaniar hil zituen, Bangkoken aditzera eman dutenez. Thailandiak tropa gehiago bidali ditu eskualdera.

Karen gutxiengoa da Rangooneko agintarien kontra gehien borroka egin duena azken urteetan. Birmanian etnia ugari bizi dira, baina birmaniar budistek (biztanlegoaren % 72) dute boterearen monopolioa. Karen (% 7) eta Rohingya etniez gain, independentziaren alde ari dira borrokan baita Shan eta Kachin herriak.

BARNEKO OPOSIZIOAREN FRONTEA Eskualdeetako mugimendu independentista hauez gain, militarrek «barneko frontea» ere menderatu behar dute. Oposizioko buruzagiak, Aung San Suu Kyi-k, atxilotuta segitzen du. Bere taldeak hauteskundeak irabazi zituen, baina jeneralek ez dute botere aldaketarik egiten utzi.

Giza eskubideen aldeko borrokan erakutsitako jarreragatik Bakearen Nobel saria eman zioten Aung San Suu Kyiri iaz. Abusu guzti horiek direla kausa ASEANeko estatuak orain arte praktikan jarri ez dituzten zigor ekonomikoak ezartzean pentsatzen ari dira.

EEBBetako lehendakaritzarako hauteskundeak

Michigan eta Illinoisek bidea libre utz diezaiekete faboritoei

Clintonek egin dioten beste salaketa bati ondo erantzuten jakin dio

Michigan eta Illinois estatuetan gaur egingo diren primarioetan erabakita gera daiteke Alderdi Errepublikarra eta Alderdi Demokratako hautagaien arteko lehia. George Bush lehendakari iparramerikarra eta Bill Clinton Arkansaseko gobernadorea dira berriro faboritoak eta beste hautagaien etsai gaindiezinak.

KOLDO ALDABE / **DONOSTIA**

Erdikalde mendebaleko bi estatu horietan Clintonek irabazteko aukerarik gehienak ditu, azaroaren 3an hautagai errepublikarrarekin lehiatzeko ateak zabalduko lizkioke gainera. Izan ere, inkestek diotenaren arabera, bere etsairik nagusienak, Paul Tsongasek bigarren lekua ere ez luke lortuko gaurko primarioetan.

Illinois eta Michiganeko primarioen ostean Arkansaseko gobernadoreak Lehendakaritzarako lasterketan bidea garbi utzi nahi duen bitartean, George Bushek bidebazterrean uzteko asmoa du Patrick Buchanan hautagai ultraeskuindarra. Inkesten arabera, lehendakari iparramerikarrak botoen % 70 baino gehiago lor dezake bi estatu horietan, eta horren ostean Buchananek itzal egiteari utziko diola espero du.

BROWN ERASORAKO GERTU Bi estatu horietan faborito izateak arazoak ekarri dizkio Clintoni, demokraten hirugarren hautagai baten aldetik, Jerry Brownen aldetik hain zuzen. Michigan eta Illinoisen bigarren lekua eskuratu dezakeenak beste salaketa bat egin zion Clintoni, oraingoan bere emaztearen inguruko kontuekin. Brownen arabera, Hillary Clintonek lan egiten duen abokatu bufeteak mesedezko lekua izan du Arkansasen, Bill Clinton gobernadorea den lekuan.

Pat Buchananek gaurko primarioetan zeregin handirik ez du.

Salaketa horiek Chicago (Illinois) estatuko telebistan eginiko eztabaida batean egin zituen Brownek. Baina salaketa horiek ez zuten bilatzen zuten helburua lortu, alderantziz baizik. Arkansaseko gobernadoreak «gezur hutsak zirela eta horrelako salaketak frogatu egin behar» direla egin aurretik eta antzeko hitzak erabiliz buelta eman zion eztabaidari. Ostean eginiko inkestan , Clintonen hitzek iparramerikarrak unkitu zituztela frogatu zen.

Clinton eta Bushek boto berdintsuak lortuko lituzkete CNN eta 'Time-ren' datuen arabera

K. A. / **DONOSTIA**

Bill Clinton Arkansaseko gobernadoreak eta George Bush lehendakari iparramerikarrak berdintsu geratuko lirateke azaroaren 3ko hauteskundeak iragan asteburuan egin izan balira, herenegun CNN telebista kateak eta 'Time' astekariak kaleratu zuten inkestaren arabera. Bi komunikabide horiek batera eginiko inkestaren datuak martxoaren 11 eta 12an jasotako iritziekin osatu ziren eta guztira 1.075 pertsonen aburuak bildu zituen.

Clinton da demokraten artean aukerarik gehienak dituena Lehendakaritzarako hauteskundeetan lehiatzeko eta Bushek, berriz, kasik eskuetan dauka azaroaren 3an hautagai demokratarekin aurrez aurre neurtzeko txartela. CNNk eta 'Timek' galdetutako pertsonen % 43k adierazi zuen une honetan hauteskundeak eginez gero Clintonen aldeko botoa emango zukeela, Bushi emango liokeen portzentaia bera hain zuzen.

Bill Clinton.

Bestalde, inkestak agertzen zuen botoemaleen % 14ek oraindik ez duela botoa nori emango dion pentsatu dio. Inkesta hau Estatu Batuetan zehar egin da, estatu bakoitzeko biztanlegoaren proportzioa gordez. Alderdi Demokrata has daiteke berriro Lehendakaritza berreskuratuko duela amesten.